

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

392 zb.
www.getxo.eus

>> 2024ko Iraila



AZAROA > ABENDUA 2024
IKASTARO BERRIAK
GAZTEBULEGOTIK

DOHAINIK

ETXEBIZITZA

**JOSTEKO
TAILERRA**

**ZEINU
HIZKUNTZA**

Nabarmen^{tzekoak}

> GJHak errealitate birtualaren bidez ezagutzera gonbidatzen gaitu Googaz ekimenak

> 214 neska-mutilek hiriko udalekuetan

> Aisialdiko eta dinamizazio soziokulturaleko titulazioak

Aisialdia eta dinamizazio soziokulturala

Euskadiko Aisialdi eta Animizazio Soziokulturaleko Eskolek prestakuntza eta titulazio ofiziala lortzeko aukera eskaintzen dute, aisialdiko eta dinamizazio soziokulturaleko taldeetan lan egiteko. Zentro horiek hezkuntza-proiektu bat garatzen dute, bakoitzak bere eredu oinarri hartuta, eta interesdunei eskaintzen die, elkarrean eta partikularren beharretara egokituta. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak baliozkotu egiten ditu ematen dituzten tituluak.

Aisialdia

Aisialdiko begirale-ikastaroa hezkuntza-lana egitea erabaki duten 18 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. Etapa teorikoan (150 ordu), hezkuntzako jarduerak, taldeko eta hezkuntzako prozesuak eta animazioko teknikak eta baliabideak lantzen dituzte haurren eta gazteen aisialdiko jardueretan. Amaitzean, praktika-modulu bat egongo da (160 ordu).

Zuzendari-ikastaroa 21 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago, eta honako helburu hauek dituzte: zentro bat zuzentzea, begiraleak koordinatzea edo aisialdiko zentroaren barruan erantzukizun handiko lanak egitea. Prestakuntza teorikoa (290 ordu) eta praktikoa (120 ordu) ere baditu.

Dinamizazio soziokulturala

Dinamizatzaile soziokulturalerako prestakuntza 21 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago eta hauek dira bete beharreko baldintzak: Goi-mailako Batxilergoko titulua edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea izatea, edo DBH gaindituta izatea. Baldintza horietatik kanpo geratzen dira 25 urtetik gorako pertsonak. Boluntariotzako erakunde bateko kide ere izan behar dute aktiboki.

Informazio gehiago:

<https://labur.eus/EjPcA>



BEKAK SARIAK

* **Bikain bekak Batxilergoko eta LHko ikasleentzat, Rural Kutxak deituta.** Euskal Autonomia Erkidegoko ikasketa-zentro ofizial batean, suspentsorik atera gabe, Batxilergoko 2. maila edo Lanbide Heziketako erdi-mailako 2. maila gainditu duten 30 urtetik beherakoei zuzenduta, baldin eta ebaluatutako irakasgairaren batean bikain bat edo gehiago lortu dutela egiaztatzen badute. 2023/2024 ikasturteko azken kalifikazioetan lortutako bikain bakoitzeko 100 euroko laguntza emango da, ikasle bakoitzeko hiru bikain gehienez ere (300 euro arte). Eskera 2024/09/30era arte. Informazio gehiago: <https://www.ruralkutxa.com/eu/bekabikain>

* **Mutua Madrileña Fundazioaren Unibertsitateko Boluntariotzaren XII. Sariak,** unibertsitateko ikasleen lan solidarioa aitortzeko eta ikasleek parte hartzen duten proiektuak, ekonomikoki, bultzatzen eta sostengatzen laguntzeko. 50.000 euro bideratu dira banatuko diren 8 saritan. Hautagaitzak 2024ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira. Informazioa eta oinarriak: www.premiosvoluntariado.com

Romoko Gaztelekuaren programazioa Iraila

GureGune gazteleku

Hilak 8, igandea: SUKALDARITZA. TALOAK
Hilak 13, ostirala: TXAPELKETA. PING PONG
Hilak 18, asteazkena: SUKALDARITZA. TORTITAK
Hilak 21, larunbata: IRTEERA. CITY JUMP
Hilak 27, ostirala: TXAPELKETA. MARRAZKIAK
Hilak 29, igandea: IRTEERA. GETXOKO MUNDUKO ARROZAK

Algortako Gaztelekuaren programazioa Iraila

GauEgun gazteleku


Hilak 7, larunbata: SUKALDARITZA. TXOKOLATEZKO FRUTAZKO BROTXETAK
Hilak 10, asteartea: MARIO CARD SWITCH TORNEOA
Hilak 13, ostirala: PING-PONG TORNEOA
Hilak 19, osteguna: FUTBOLIN TORNEOA
Hilak 21, larunbata: SUKALDARITZA. TAKOAK
Hilak 27, ostirala: GAZTEXPRESS
Hilak 29, igandea: IRTEERA MUNDUKO ARROZAK EKINTZARA

Joskintzari, zeinu-hizkuntzarari eta etxebizitzari buruzko doako ikastaroak

Udaleko Gazteria Zerbitzuak doako hiru ikastaro berri antolatu ditu 16 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat: joskintza, zeinu-hizkuntza eta etxebizitza. Azarotik abendura bitartean egingo dira; bi aurrez aurrekoak izango dira eta bat online.

Joskintza tailerren parte-hartzaileek oinarrizkoak ikasiko dituzte (botoi bat jostea, barrenak eskuz hartzea, kremaileak konpontzea, jantziak ondo probatzea, urratuak edo tarritadak konpontzea, makinaz jostea...). Gaztelaniaz emango da hiru larunbatetan, urriaren 5, 19 eta 26an. Algortako Elizondo kaleko 7. zenbakian dagoen josketatailerrean. Orduetgia 11:00etatik 13:00etara izango da.

Zeinu-hizkuntzari buruzko ikastaroa online egingo da, gaz-



telaniaz, azaroaren 4tik abenduaren 13ra. Amaitutakoan, bertaratze-ziurtagiria eta A1.1 titulua emango dituzte.

Etxebizitzari buruzko tailerra azaroaren 6an emango da Romo Kultur Etxean. 17:30ean (gaztelaniaz) eta 18:45ean (eus-

karaz). Gazteentzako etxebizitza aukeratzeari eta behar dituzten tresnei eta informazioari buruzko argibideak eskainiko dira. Argibideak eta izen-emateak: Gaztebulegoa (Tel.: 94 466 03 53/688 88 09 85); gaztebulegoa@getxo.eus eta www.getxo.eus/gazteria

Areetako Geltokia plazan izango da urriaren 11n eta 12an.

GJHak errealitate birtualaren bidez ezagutzera gonbidatzen gaitu Googaz ekimenak

Googaz, millennial inkonformistek sortutako mugimendua, Euskadiko gazteak ekintzara eta beren bizitzan jabe izatera motibatzea helburu duena, Areetako geltokiko plazan izango da urriaren 11n eta 12an. Ekimen honen bosgarren edizioa da, eta erronka berri batekin dator: GJH Garapen Jasangarriako Helburuak herritarrei hurbiltzea errealitate birtualaren, erronken eta hezkuntzaren bidez. Orain arte, 21 udalerritako 1860 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte. Bigarren edizioan, Getxoko

taldea Bizkaiko irabazle suertatu zen eta Mexikoko IATA Bootcamp txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen.

"Mundu aldakor eta estimuluz beteriko batean bizi gara, non etorkizuneko erronkak orainaren parte diren. Nola bihurtzen dugu teknologia gure erronka sozialen parte? Nola egiten dugu aurrera guk, gazte digital gisa, etorkizun jasangarria erakitzeke?," galdetzen diote beren buruari.

Googazek 16 urtetik gorako pertsonak jardunaldietan parte

hartzea animatzen ditu. Jardunaldi horietan errealitate birtualeko betaurrekoak izango dituzte, pertsonako 40 minutuko saioetan. Urriaren 11n, ostirala, udalerriko ikastetxeetako ikasleei eskainiko zaie, eta 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:20ra joan ahal izango dira. Larunbatean, hilak 12, ekimena zabalik egongo da 11:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Plaza eta ordua online erreserba daitezke (<https://www.googaz.eus/play>) edo gune berean ekitaldiaren egunean. Informazio gehiago: gaztebulegoa@getxo.eus, 94 466 03 53.



214 neska-mutiek hartu dute parte hiriko udalekuetan

5 eta 12 urte bitarteko 214 neska-mutil getxotarrek (iaz baino 30 gehiago) parte hartu dute uztailean Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako hiri-udalekuetan. Goizeko txandan, 09:00etatik 14:00etara, 106 pertsona bertaratu ziren, eta egun osoan, 09:00etatik 17:00etara, 108; horietako 6k dibertsitate funtzionala zuten. Aurten ere, ekimen honekin lortu nahi diren helburuak bete dira: haurrei gizarte- eta hezkuntza-proiektu bat ematea; balio eta jarrera ez diskriminatzaileak garatzea; haurtzaroaren garapen integral osasungarriaren alde egitea (irudimena, sormena, identitatea eta autonomia

pertsonala); balioetan eta bazterkeriarik gabeko jarreretan oinarritutako hezkuntza bultzatzea; kulturartekotasuna sustatzea; partehartze aktiboa bultzatzea; ingurumenarekiko jarrera positiboak bultzatzea; lan-kidetzaren, elkartasuna, errespetua, tolerantzia eta berdintasuna sustatzea; lana eta familia bateragarri egiten laguntzea; eta ingurune hurbilena, euskal kultura eta euskararen erabilera sustatzea. Gazteria Zerbitzuak gurasek egindako hobekuntza-proposamen batzuk baloratuko ditu, hala nola plaza kopurua handitzea edo udalekuen eskaintza abuztuko lehen hamabostaldira zabaltzea.